

# GAU BELTZA

## KONDAIRAREN BERTARAKOTZEA

Gau Beltzaren kondaira Euskal Herri osoko herri eta auzoetara iritsi dadin nahi dugu eta bakoitzak bere egin dezala hau. Nola ekarri kondaira tokian tokira?

Hemen gako batzuk!:

## TOKIAN TOKIKORA EKARRI

Kondairaren lehenbiziko zatian, adibide, hainbat pertsonaiaren ahotsak azaltzen dira haien beldurrak adieraziz. Beldur eta pertsonaia hauek erabat aldagarriak dira. Esaterako; tuneleko iluntasunaren beldur den neskatoaren kasuan, tunel hori norberaren herriko puntu kritiko batengatik ordezkari liteke. Ohe azpiko munstroaren beldur den mutikoari dagokionez, norberaren herrian ezaguna den pertsonaia beldurgarria izan liteke ohe azpian zein armairu edo bidegurutzan zain duena.

Tokian tokiko izen propioak txertatu. Euskal Herrian badira sorgin eta intxixu ezagunak, kondairako pertsonaia hauei norberaren herriko pertsonaien izena jartzea proposatzen dizuegu.

Hitz magikoak ere aldagarriak dira. Kondairan Baga Biga Higa kantuan azaltzen diren hitzak erabili arren tokian tokiko berbekin hitz magiko berriak sortzera zein birsortzera animatu nahi zaituztegu.

## HIZKUNTZAREN ERABILERA

Euskalkiak txertatzea ere proposatzen dugu, kontakizunari tokian tokiko hizkera txertatzea zehazki. Euskal Herrian, gainera, euskalkiez gain, segun nor nori hitz egiten dion hizkuntzaren erabilera aldakorra da, beraz, jolas aproposa egingo dugu hizkuntzarekin ondo pasatzeko Gau Beltzaren kontura.

## SOINU EFEKTUAK

Soinu efektuak modu naturalean txertatzeko proposamena ere luzatu nahi dizuegu. Kontakizunari testuingurua soinuaren bidez emango diogu. Nola? Gorputzeko atalak, inguruko objektuak, ahotsa.. erabiliko ditugu kondairaren paisaia soinu irudikatzen. Kilkerrak egiten duen soinua, hontzarena, otsoarena eta baita haizeak eragindako zuhaitzen dantzarena bezalako soinuak geuretik egingo ditugu. Naturarekin konektatzeko dinamika gisa bidera liteke.